Justizia Administrazioan euskarak zer berri

Jon ETXABE

Donostiako Abokatu Kolegioko Euskara batzordeko arduraduna

Amaitu berria den urtean Justizia Administrazioari dagokionez zerbaitek sortu badu albisterik, euskararen (hobe esanda euskara ezaren) auzia izan da. Justizia Administrazioan euskaldunok bizi dugun bereizkeria agerian gelditu den urtea izan dela esan dezakegu. Autonomi Erkidegoko Estatutuak euskararen ofizialtasuna aldarrikatu zuenetik 19 urte igaro direlarik, zoritxarrez ofizialtasun horrek berarekin dakarrena bideratzeko -herritarrek Administrazio ororekin beren harremanak euskaraz izateko eskubidea- ezer gutxi egin dela nabaria da. Zarata dexente sortu behar izan da hori agerian uzteko, eta maila haundi batean urte honen emaitza nagusi bezala zera adierazi daiteke: gizarte operadore gutxi izango dela gaur egungo Justizia Administrazioak eukaldunon eskubideak bermatzen dituela esaten duenik. Bizkaia zein

> **“ Ondorio tamalgarrien artean abokatuei ezarritako isunak ditugu (bi miloi bi egunetan). ”**

Gipuzkoako abokatuen elkargoetako Euskara batzordeak izan dira gai hau kaleratzea lortu duten agenteak. Baina hauek benetan ez lukete inongo aukerarik izanen borroka honen benetako protagonistak izan ez balira: herritar euskaldunak. Epaitegiek herritargoarengan sortzen duten zirrarari aurre egin eta beren eskubideak aldarrikatzeari beldurrik gabe ekin diote herritarrek. Horien artean aipagarriena Etxeberria eta Balenciaga jaunek, hala nola

> **“ Justizi Administrazioak koofizialtasunera egokitu beharra duela argi eta garbi gelditu zen. ”**

beren abokatuek, Donostiako Entzutegi Probintzialeko Lehen Sekzioan daramaten hizkuntz eskubideen zein defentsa eskubideen borroka da. Euskararen ezagupen ezak eta hizkuntza honekiko mespretxuak sorturiko istilu batetik datorren auzi honek argi eta garbi adierazi ahal izan du euskararen auzia zertan den Erkidegoan. Eta abokatuak hori bere gordintasun osoan azaltzen saiatu ziren azaroaren 27an ospaturiko bistan. Defentsak Erkidego Autonomikoko herritarrek Administrazioarekin harremanak euskaraz bideratzeko duten eskubidea azaldu ostean, eta gaur egun euskaldunoi ezartzen zaigun itzulpen sistemak, babes judizial eraginkorrerako eskubidea zein defentsa eskubidea - Konstituzioak oinarrizko eskubide bezala jasoak dituenak- nola urratzen diren adierazi ostean, alegoria bidezko aurretiazko kuestio baten bidez euskaldunon hizkuntz eskubideak nola urratzen diren azaltzeari ekin zioten. Euskaldunon eskubideen bortxatzearen aurkako epaiketa protesta bihurtu den honek, izan ditu ondorioak ostera, batzu tamalgarriak, besteak aldiz pozgarriak. Tamalgarrien artean abokatuei ezarritako isunak ditugu (bi miloi bi egunetan). Pozgarrien artean, gauzak mugitzen hasi direnaren susmoa. Gauzak mugitzen hasi direla diogu, batetik Gasteizen Justizia Sailak antolaturiko euskarari buruzko jardunaldietan, aldaketa beharra agerian sentitu delako.

IRAKURLEAK MINTZO. *Eleria*. 2, 1997, 91-95

> **Epaitegiek herritargoarengan sortzen duten zirrarari aurre egin eta beren eskubideak aldarrikatzeari beldurrik gabe ekin diote herritarrek.**

Justizi Administrazioak koofizialtasunera egokitu beharra duela argi eta garbi gelditu zelako. Hor ditugu bertan jasotako ondorioak; Justizi Administrazioko operadore desberdinen artean gaia aztertu eta plangintza bati ekiteko batzorde berezi bat eratu beharra azaldu zen. Eskualdaturiko funtzionarioak normalkuntza plangintza batean murgildu behar dutela adierazten duena, eta epailetzarekin akordioak burutu beharra agertzen duena. Hor kokatzen da ere behin-behineko irtenbide bezala, bere garaian Bizkaiko Euskara batzordeak proposatu eta berriro ere indar berriz Gipuzkoa aldetik proposamen bezala bideratzen ari den "zirkuitu euskaldunen" ezartzea. Modu labur batean, euskarazko auziak ezagutuko lituzketen laguntzazko eskubideak bermatuak izan daitezen. Horrekin batera bada beste ekimen pozgarri eta esperantzagarri bat, hain zuzen Euskal Herriko abokatu euskaldun guztiak bildu asmo duen *Abokatu Euskaldunen Sindikatua*-ren sorrera, ekimen benetan interesgarria, gure herriak bizi dituen errealitate desberdinei aurre egiteko asmo duena eta ziurrenik hilabeteotan zeresan ugari sortuko duena. Hemendik zorte ona opatzea besterik ez.

Epaitegietako inprimaki-ereduak euskaratzen

Lore AZKARATE

UZEI

Epaile euskaldun batzuek bultzatuta eta Justizia Sailaren ekimenez, orain dela bi urte, 1996ko otsailean, hasi ziren epaitegietako inprimaki-ereduak euskaratzen.

Hasieratik bertatik batzorde zabal bat osatu zen itzulpeneko irizpideak bateratzeko, Zuzenbide mundua euskaratzeko lanean diharduten talde desberdinetako ordezkariak elkartuz: EHU eta Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide fakultateak, Bizkaia eta Gipuzkoako abokatu elkargoak, HAEE/IVAP, UZEI, Justizia Saileko euskararen arduraduna eta epaile euskaldunak.

Dagoeneko ehun eredutik gora prestatu dira auto, probidentzia, epai, zitazio-zedula, exhorto eta abar barne hartuz, eta lanak aurrera jarraitzen du. Lehen saioan epaiketa zibileko lehen auzialdiko ereduak landu ziren, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoetako eredu-sail baten ondoren, penaleko instrukziokoekin ari dira orain, eta erregistro zibilekoei eta sozialekoei aurki helduko zaie txanda.

Lantaldearen aldetik, esan beharra dago talde hau dela orain arte lortu den plataforma zabalena Zuzenbidea euskalduntzeko bidean eta hasiera batean elkar hartzea eta adostasuna lortzea erraza izan ez bazen ere, aurreratzen ari dela Zuzenbideko hizkera bateratzeko oinarriak sendotzen.

IRAKURLEAK MINTZO. *Eleria*. 2, 1997, 91-95